



Schools for Resilience

Informazio-buletina

2016ko maiatza





School for Resilience (SfR) proiektua 2014. urtean jarri zen abian eskoletan ingurumen-hezkuntzarako ikuspegi erakargarria garatzeko asmoz komunitateko erresilientzian eta tokiko inguruneke ikaskuntzan oinarrituta (PBL, ingelesez). Proiektuko bazkide guztiek diseinatutako plan didaktikoa probatzeko asmoz, Euskadin, Italian, Irlanda, Galesen, Danimarkan eta Letonian 6 esperientzia pilotu egin zituzten 2015. urtearen erdialdetik 2016. urtearen hasierara arte. Esperientzia horiek ikastetxeetan irakaskuntzako ingurunean ingurumeneko eta gizarte arloko balioak landu nahi dituzten irakasleentzako behin betiko metodologia osatzen lagunduko dute.

Honako hauek dira pare hartu duten 6 herrialde horietako esperientziak:

EUSKADI



Aranzadi Zientzia Elkarteak SfR proiektua Ordizia udalerrian egin zuen 2015eko ekainetik irailera bitartean. Bertan, Oianguren institutuko 14 eta 15 urte arteko 69 ikaslek hartu zuen parte. Lehen bi gelek ikastaroa 4 astetan eman zuten eta, gainerako biek bi astetan. Hori zela eta, interesgarria izan zen plan didaktikoak denbora-epe ezberdinetan nola funtzionatzen zuen ikustea. Lehenengo eta behin, ikasleek erresilientziaren berri jaso eta haien zati garrantzitsuenak diren balioen inguruko eztabaida egin zuten. Ondoren, taldean egindako brainstormingeko ariketak taldean

eginda eta tokiko egiaztapenaren bidez, Ordizian gai hauen kudeaketaren inguruan pertsonei elkarriketa egiteko galdera-sortak diseinatu zituzten: garraioa, elikadura, hondakinak eta energia. Esperientzia horien bidez, beren komunitateko beharrak eta aurreikuspenak identifikatu eta, ikasgelako ohiko eskoletatik kanpo, talde gisa lan egiten ikasi zuten.

Ikasleek ekintza-planak diseinatu zituzten 4 gai nagusi horiekin lotutako erronkak gainditzeko. Energia berriztagarrien erosketako eta sorkuntzako enpresa batekin hitz egin, elikadura arloko tokiko merkaturia aztertu eta publizitate-kanpaina sortu zuten tokiko kiroldegira joateko garraio publikoa erabiltzera animatzeko herritarrak. Azkenean, beren ideiak proposatu zituzten ikastaroan identifikatu zituzten erronkei aurre egiteko. Horretarako, Ordiziako Barrena jauregian aurkezpen publikoa egin zuten.



ITALIA



SfR proiektua Olginate udalerriko G. Carducci izeneko bigarren hezkuntzako zentroan egin zuten. Ondoko hiru udalerritako ikasleak joaten dira bertara eta arratsaldean jardueren eta tailerren aukera zabala eskaintzen du. Gainera, tokiko elkarteekin laguntzarekin, ekimenak antolatzen ditu.

Aurreko ikasturtean ekintza aurre-pilotua egin zuten eta 15 geletako 340 ikasleak bildu zituen. Jarraian, 2015eko irailean

irakasleek prestakuntza jaso zuten eta SfRko irakasleen taldeak Schools for Resilience modulua hirugarren mailako bi gelatan zuzentzea erabaki zuen (13-14 urteko ikasleak). 20 eskolako SfR moduluaren iraupena bi hilabete ingurukoa izan zen eta balioetan oinarritutako hasierako jardueren esker, ikasleek beren zein lurraldeko beharren inguruko kontzientzia hartu ahal izan zuten. Kanpoaldean egindako ikaskuntzako esperientziei, udalerrian zehar herritarrekin egindako elkarrizketei eta boluntarioekin eta adituekin batera egindako bisitei esker, komunitate kide izatearen sentimendua sendotu eta funtsezko arazo batzuei (zaborra eta hondakinak, adibidez) aurre egiteko irtenbide praktikoak bilatu zituzten.

PBL metodologiak modu aktiboan inplikatzeko zituen ikasleak SfR modulu osoan eta elikagaiak atez ate jasotzeko ekimena zein amaierakoa antolatzeko funtsezko rola betetzera eraman zituen. Aste osoan, eskola tokiko komunitatearentzat irekita egon zen eta erresilientziari eta iraunkortasunari buruzko tailerrak, bilerak, ikasleen lanen erakusketa, abesti-emanaldia eta tokiko elkarteekin postuak antolatu zituzten. Ekimen nagusia "Energidi" izeneko txapelketarako etenik gabeko 48 orduko txirringularitzako jardura izan zen. Gainera, eremu hartako 2000 lagunek baino gehiagok hartu zuten parte ustekabearen.

IRLANDA



Cultivate Living and Learning izeneko Irlandako bazkideak SfR-ren modulua bi ikastetxetan egin zuten. Haietako bat Clare konderriko (Irlandako mendebaldean) bigarren mailako hezkuntzako Raheen Wood Steiner zentroa izan zen. 12 eta 17 urte arteko ikasleentzat egun osoko pixkanakako hezkuntza eskaintzen du. SfR modulua 10 astez egin zuten eta Irlandako komunitate-proiektu iraunkor nagusira txangoa bildu zuten:



Cloughjordan Ecovillage izenekora. Steiner bigarren mailako ikastetxeko 12 ikaslerekin egindako SfRko Irlandako bi modulu pilotu horietako baten aurkezpena aukera bikaina izan zen materiala Estatu Eskola-sistematik kanpo zeuden ikasleen talde hartzailearekin probatzeko.

Bigarren proba pilotua Colaiste Chill Mhantain-en egin zuten; Wicklow konderrian dagoen 15 eta 16 urte artean dituzten eta trantsizio-urtean dauden ikasleentzako bigarren hezkuntzako eskola bat da. Urtebeteko hautazko eskola-programa da eta, lehen mailako ikasketa-titulua lortu ondoren, Irlandan egin daiteke bigarren hezkuntzako ziklokoko azken 2 urteak baino lehen. Trantsizio-urteko programa horrek ikasleen garapen pertsonala, soziala, bokazionala eta hezkuntza arlokoa bultzatzen ditu eta, gainera, gizarteko kide arduratsu gisa aurrean duten rolerako prestatzen ditu. Proba pilotua Irlandako eskoletan ikastaro hori txertatu ahal izateko moduan diseinatu zuten.

Bi proba pilotuek harrera ona izan zuten eta ikasleek eremuarekiko zuten konpromisoa bultzatu zuten behaketako ariketen eta txangoen bidez. Ikastaroak balioak, pentsamendu sistemiko integrala eta gure komunitateen erresilientzia nola sendo dezakegun arakutzen zuen. Bi eskola horien azken jardura tokiko janariarekin egindako ospakizuna izan zen; ikasleek menua prestatu eta tokiko komunitaterako ekimena antolatu zuten. Ikasleek aurkezpenak egin, musika jo eta tokiko ekoizleekin hitzaldiak eta eztabaidak aurkeztu zituzten; horien bidez, komunitatearekin harremanak eraiki eta tokiko sentimendu sendoagoa garatu zuten.

GALES



Galeseko proiektu pilotuaren esperientzia Galeseko hegoaldean, Cardiff eta Swansea artean, dagoen Pencoed Comprehensive School ikastetxean egin zuten.

Geografia-sailarekin eta alboko buruarekin egindako bileren bidez, proba pilotua antolatu zuten eskoletako “eko-klubean” egiteko (ostiralero, bazkaltzeko orduan, biltzen den boluntarioen taldea da). Proiektua 7-9 ikasmailetako (12-15 urte artekoak) 15 ikasleko taldearekin egin zuten 4 hilabetez. Gutxi gorabehera, tailerretako 26 ordu izan ziren. Ikasleek saioen erregistroa egin zuten gogoeta-egunerokoarekin eta SfRko jarduerne

bankuko hainbat jardueratan hartu zuten parte, balioei buruzko tailerrak eta komunitatearen araketa barne. Horri esker, ikasleek beren eremuko konexioak hobetzea erabaki zuten. Horretarako, eskolak zein tokiko komunitateak erabilitako ibaiaren garbiketa antolatu eta burutu zuten. Ikasleek hiri osoan jarri zuten ekimenaren inguruko publizitatea eta tokiko komunitateko guneetan jarritako kartelen bidez eta ahoz aho eman zuten guztiaren berri. Ekimenean tokiko komunitateko hainbat kidek, dendetako jabeek eta egoiliarrek hartu zuten parte. Gainera, tokiko parlamentuko diputatu bat ere azaldu zen. Proiektuaren ondorioz, eskolaren eta komunitateko funtsezko kide batzuen arteko loturak egin zituzten. Gainera, ingurune fisikoa, hau da, Ewenny ibaia, hobetu zuten.



DANIMARKA



SfR proiektuaren Danimarkako proba pilotua Sejs de Silkeborg eskolan egin zuten. Zortzigarren mailako gela batean probatu zuten ikastaroa. Bi irakasle zituzten eta, besteak beste, ikasgai hauek eskaintzen zituzten: daniera, gizarte-zientziak, geografia, biologia eta ingelesa.

Hasteko, ikasleek kontsultak egin zituzten tokiko komunitatean. Astebetean beren familian elikagaien zenbat honda-

kin sortzen ziren ikertu eta bizilagunei galdetu zieten komunitate hobea nola bultza zezaketen. Sarrerako ikastaro haren ostean, ikasleek taldetan lan egin zuten eremu hartan modu iraunkorra goan bizi ahal izateko ideien ekarpena jasotzeko. Talde-lanean, ikasleek tokiko egoiliarren galderasortak jaso eta elkarriketak egin zituzten. Jasotako datu enpirikoen bidez, komunitatean bizimodu iraunkorragoa izatearekin lotutako ekimen berriak iradoki zituzten gero. Ikasleen proposamenak azoka moduko batean aurkeztu zituzten eta gurasoekin eta zonaldeko beste parte-hartzaile batzuekin hitz egiteko aukera izan zuten.

Proiektuaren ebaluazioak agerian utzi du ikasleak beren kabuz jabetu direla ingurumena zaintzeko garaian aldaketa bultza dezaketela.

LETONIA



Letonian, SfRko materialak bi eskolatan probatu zituzten: bigarren hezkuntzako Kandava barnetegian (6. maila) eta lehen hezkuntzako Ogresgals ikastetxean (5. maila). Bi eskola horietako ikasleek klima-aldaketak beren komunitateetan duen inpaktua aztertzea erabaki zuten. Kandava izeneko bigarren hezkuntzako barnetegiko ikasleek komunitatearen erresilientzia ikertu zuten ekaitza dagoenean; aldiz, lehen mailako Ogrsegals ikastetxeko ikasleek uholdeen

inpaktua aztertu zuten. Proiektua praktikan jarri ostean, ikasleek onartu zuten klima-aldaketari eta komunitatearen erresilientziari buruzko ezagutza berriak lortu, eta lankidetzarako eta ikerkuntzarako beren gaitasunak garatu zituztela. Ikasleak, tokiko komunitateko beste pertsona batzuekin elkarlanean, positiboago bihurtu eta etorkizunaren inguruko ikuspegi baikorragoa lortu zuten; izan ere, komunitate batek, elkarrekin lan eginez gero, aldaketa ugarietara egokitzeko gaitasuna duela baieztatu zuten.

Nazioarteko prestakuntza-mintegia Cloughjordan Ecovillagen

SfRk diseinatutako plan didaktikoa eta materialak Europa mailan aurkezteko asmoz, 2016ko urriaren 11n egun bateko mintegia egingo dute Cloughjordan Ecovillage izenekoan. SfRko bazkideek proiektuaren emaitzak aurkeztu eta tokiko ingurune alderdietan oinarritutako ikaskuntza eta erresilientzia eskolako irakaskuntza-testuinguruan txertatzeko modu berrien inguruko eztabaida egingo dute.

Iraupena:

2013ko azaroa – 2016ko urria

Informazio gehiago:

Proiektuaren koordinatzailea

Aranzadi Zientzia Elkartea: medeso@aranzadi.eus

Erakunde bazkideak

VIAUC (Danimarka): pa@via.dk

Municipality of Olginate (Italia): marilinda.rocca@gmail.com

Cultivate (Irlanda) : davie@cultivate.ie

Bernu Vides Skola (Letonia): inese@videsskola.lv

Field Studies Council (Erresuma Batua): jane.mp@field-studies-council.org

www.schools-for-resilience.eu



Proiektu hau Europako Batzordearen laguntzarekin finantzatu da. Publikazio honen ardura osoa bere autorearena da. Batzordeak ez du hemen zabaldutako informazioaz egin daitekeen erabilpenaren ardurarik.

Proiektu zenbakia: 538583-LLP-1-2013-1-ES-COMENIUS- CMP